

ARRETA GOIZTIARRA HEZKUNTZAREN BAITAN

*EL ENTORNO EDUCATIVO
DE LA ATENCIÓN TEMPRANA.*



Haurren garapenaren jarraipenerako protokoloa
Protocolo de seguimiento del desarrollo infantil.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza Saila <i>Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi</i> <i>Departamento de Educación</i>
Argitaratzailea	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Diseinua	TaPuntu

ARRETA GOIZTIARRA HEZKUNTZAREN BAITAN

EL ENTORNO EDUCATIVO DE LA ATENCIÓN TEMPRANA.

Haurren garapenaren jarraipenerako protokoloa

Protocolo de seguimiento del desarrollo infantil.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Eusko Jaurlaritzak otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen arloetan Arreta Goiztiarraren eremuan egiten diren esku-hartzeak antolatze eta koordinatzeko oinarritzko arauak ezarri zituen, zuzenean inplikaturako osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen sistemetako jarduketak egokiro koordinatuko diren eredu integral eta efikaz bat bermatzeko helburuarekin.

Haurren garapenaren lehenengo urteetako ezaugarria da funtzioak era progresiboan jasotzen dituztela, hala nola posturaren kontrola, mugimendurako autonomia, komunikazioa, hitzezko hizkuntza eta interakzio soziala. Haur-garapena prozesu dinamiko oso konplexua da, eta bertan, oinarri genetiko jakin baten gain, faktore biologiko eta psikosozial ugari jarduten dute. Elementu horien edozein trastornok arrisku bat dakar, edo garapenaren trastornoak ere eragin ditzake.

Nahasmendu horiek garapenaren etapetako edozeinetan gerta daitezke: jaio aurrekoan, jaiotza inguruan, jaio ondoren edo garapen goiztiarrean. Nazioartean onartuta dauden estandarren arabera, garapen horrek 0 urtetik 6 urtera bitarteko aldia hartzen du. Datuek adierazten dute nahasmendu horiek arrisku bat direla eta garapenean trastornoak sor ditzaketela adin-bitarte horretako haurren % 10 inguruan. Arazo handi bat eta garrantzi handikoa da, beraz.

Gaur egun, ebidentzia zientifikoak agerian uzten du adierazitako nahasmenduen arteko zenbait saihesgarriak direla, beste batzuk erabat edo partzialki zuzen daitezkeela, eta nahasmendu horietako gehienen ondorio negatiboak gaia behar bezala aztertuta arin daitezkeela, eta zenbat eta lehenago aztertu orduan eta eraginkorragoa izango da hurbilketa hori. Afekzio handieneko egoeretan ere, laguntza profesional espezializatua jasoz gero erlazionaturako nahasmenduak agertzea prebenitzen du, haurraren eta haien familien ongizatea hobetzen du, eta autonomia-maila, parte-hartze maila eta gizarteratze-maila hobetzen ditu.

Laguntza profesional hori Arreta Goiztiarrean txertatzen da, eta 0-6 urte bitarteko hurrei, horien familiei eta inguruneari zuzendutako esku-hartzeen multzoa da Arreta Goiztiarra. Euskal Autonomia Erkidegoan, premia horiei erantzuteko urrats handiak eman dira; hala, askotariko planak, programak eta ekimenak abiarazi dira erantzun horretan parte hartzen duten eremuetan eskudunak diren Sailen bitartez.

Horrela, osasun sistemaren helburu dira haurren urritasunen prebentzio-programak garatu eta artatzea, arriskuan dagoen biztanleriaren jarraipena egitea, eta esku-hartze goiztiarreko proposamenetan laguntzea.

Gizarte-zerbitzuen arloan, arreta goiztiarraren esku-hartzean bi multzo nagusi garatu dira. Alde batetik, babesgabezia arriskuan edo babesgabezia egoeran dauden haurren babesaren arlokoa; eta, beste alde batetik, autonomia sustatzeko eta desgaitasunari eta mendetasunari arreta emateko jardunak.

Hezkuntzaren arloan esku-hartzea haurrak eskolatzen direnean hasten da. Hezkuntza-zerbitzu guztiek –egungo nahiz etorkizunekoak– helburu dute hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten haur guztiei hezkuntza eskubidea eta aukera berdintasuna bermatzea, eta hemen biltzen dira esku-hartze goiztiarra eta iraunkorra behar duten guztiak. Hezkuntza Saileko Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako lan-arloan «Eskola inklusiboa garatzeko esparru-planari» dagokionez, helburuetako bat du Arreta Goiztiarreko sail arteko eredua garatzea.

Begirunea eta indarrak jarriko dira detekzioan, diagnostiko goiztiarrean, beharren balorazioan eta esku hartzeko prozesuan eraginkortasuna bermatzea, bai eta baliabide publiko eta pribatuen erabileran eraginkortasuna bermatzean ere.

Pasa dira zazpi ikasturte hezkuntzan Arreta Goiztiarra programa martxan jarri zenetik. Asko ikasi da eta aurrerapen handiak eman arren badira oraindik hobeto edota zuzendu beharreko hainbat aspektu. Bakoitzak bere errealitateari eta ezau-garriei erantzun beharko dio, baina horrek ez du esan nahi berdin egin behar diren hainbat ekimen ez daudenik. Komenigarria ez ezezik beharrezkoa ikusten da protokolo eta prozedura berberak erabiltzea Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietako Haur Hezkuntzako Arreta Goiztiarra programaren baitan.

Otsailaren 2ko Dekretuak araututakoa jarraituz, sistemetako jarduketak ego-kiro koordinatuko diren eredu integral eta efikaz bat bermatze aldera ikastetxeak berari dagozkion zereginak, eta ikastetxeak beste batzuekin batera egin beharrekoak bereizten dira Haurraren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloaren hiru faseak erreferentziatzat hartuta. Haur Hezkuntzako 2-5 urte bitarteko haur guztiek, inolako salbuespenik gabe, beraien garapenaren jarraipena egingo zaie Arreta Goiztiarreko Marko-Planak ematen duen prozeduran eta bertan esaten den eran.

Arreta goiztiarra hezkuntzaren baitan.
Haurren garapenaren jarraipenerako protokoloa

*El entorno educativo de la atención temprana.
Protocolo de seguimiento del desarrollo infantil.*

ESKURAGARRI EDUKI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

- **13/2016 DEKRETUA**, otsailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarra esku-hartze integralari buruzkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. 2016ko martxoaren 7a.
- **Arreta Goiztiarreko Marko-.Plana.** Haurren garapenaren jarraipenerako Protokoloa: Arreta Goiztiarra hezkuntzaren baitan. Eusko Jaurlaritza. 2016.
- **Bigarren fasea: Detekzio Espezifikoa.** Haurren garapenaren jarraipenerako Protokoloa: Arreta Goiztiarra hezkuntzaren baitan. Eusko Jaurlaritza. 2020.
- **Hirugarren fasea:** beste Zerbitzu batzuetarako **Deribazio Txostena.**

DOCUMENTACIÓN A TENER DISPONIBLE.

- **Decreto 13/2016**, de 2 de febrero, de intervención integral de la Atención Temprana en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Boletín Oficial del País Vasco. 7 de marzo de 2016
- **Plan Marco de Atención Temprana.** Protocolo de Seguimiento del Desarrollo Infantil: atención Temprana en el ámbito educativo. Gobierno Vasco. 2016.
- **Segunda fase: detección Específica.** Protocolo de Seguimiento del Desarrollo Infantil: atención Temprana en el ámbito educativo. Gobierno Vasco. 2020.
- **Tercera fase: informe de Derivación a otros Servicios.**

Aurkibidea

Índice

ARRETA GOIZTIARRAREN FASEAK	10
<i>FASES DEL PROTOCOLO</i>	11
ARRETA GOIZTIARRA PROGRAMAN IKASTURTEAN ZEHAR	
EGINBEHARREKOAK, ARDURADUNAK ETA MOMENTUAK	12
<i>TAREAS, RESPONSABLES Y MOMENTOS DEL PROGRAMA</i>	
<i>DE ATENCIÓN TEMPRANA A LO LARGO DEL CURSO</i>	13
ZUZENDARIAREN ZEREGINAK	10
<i>QUEHACERES DE LA DIRECTORA Y DEL DIRECTOR</i>	10
IKASKETABURUAREN ZEREGINAK	14
<i>QUEHACERES DE LA JEFATURA DE ESTUDIOS</i>	15
IRAKASLE AHOLKULARIAREN ZEREGINAK	16
<i>QUEHACERES DEL PROFESOR CONSULTOR O CONSULTORA</i>	17
2-3 URTEKO HAURREN TUTOREAREN ZEREGINAK	18
<i>QUEHACERES DE LAS TOTORAS O TUTORES 2-3 AÑOS</i>	19
4-5 URTEKO HAURREN TUTOREAREN ZEREGINAK	18
<i>QUEHACERES DE LAS TOTORAS O TUTORES 4-5 AÑOS</i>	19
OHIKO 20 GALDEREI ERANTZUTEN	20
<i>RESPONDIENDO A LAS 20 PREGUNTAS HABITUALES</i>	21

ARRETA GOIZTIARRAREN FASEAK

ARRETA GOIZTIARRA	Lehen fasea GARAPENAREN OHIKO ZAINTEA	Bigarren fasea DETEKZIO ESPEZIFIKOA	Hirugarren fasea BALORAZIO PSIKOPEDAGOGIKOA (BP) BIDERATZEA
APLIKAZIO ESPARRUA (nori aplikatuko zaio):	2-3-4 eta 5 urteko haur guztigutiei, inolako salbuespenik gabe.	Lehen fasea aplikatu ostean: • Arlo baten <i>hiru item edo gehiago</i> edo <i>bi arlotan bi item</i> edo gehiago betetzen ez direnean. • Alerta-zantzuen presentzia badago. • Haurrak bere adin kronologikoari dagozkion garapen goiztiarraren %50 edo gehiago agertzen bada, eta, gainera, arlo baten <i>hiru item edo gehiago</i> edo <i>bi arlotan bi item edo gehiagotan</i> ikusitako jokabideak adin handiagokoak badira.	Bigarren fasea aplikatu ostean hala erabakitzen diren kasuak. Detekzio Espezifikorik gabe ezin da fase honetara inor iritsi.
APLIKATZAILEA (nork aplikatuko du)	Haur talde bakoitzeko TUTOREA.	Tutorea eta irakasle aholkularia/orientatzailea.	BP: HLBP aholkularia. Bideratzea: EVAT
LAGUNTZAILEA (noren laguntza)	Ikastetxean: beste tutoreak edota irakasle aholkularia/orientatzailea. Kanpoan: HLBP aholkularia.	HLBP aholkularia.	HLBP aholkularia. Beste zerbitzu batzuetako profesionalak.
TRESNA (zer aplikatuko da)	Haurraren Garapena Behatzeko Eskalak (haurraren adinari dagokiona)	Proba estandarizatuak.	Berariazko proba estandarizatuak.
APLIKAZIO SASOIA (noiz aplikatuko da)	4 eta 5 urtekoak: ikasturte bakoitzean azaroaren 1etik abenduaren 20ra bitartean. 2 eta 3 urtekoak: ikasturte bakoitzean otsailaren 1etik martxoaren 15era bitartean.	Haurraren Garapena Behatzeko Eskaletan alerta-zantzuak ala garapen goiztiarraren zantzuak ikusi bezain azkar.	Detekzio Espezifikoak markatzen duen momentuan.
PROZEDURA (nola aplikatuko da)	Behaketaren bidez gauzatu da. Behaketa taldean egiten da eta eskaletako item guztiak bete behar dira (ezin da itemik zuriz utzi, zalanztza kausak azaldu eta arrazoitu oharretan). Detekzio espezifikora pasa aurretik eskaletan lortu gabeko itemen lanketa berehala egingo da Jarduera-Plan pertsonalizatua eginez.	Proba gidak markatzen duen eran.	Kasuan kasuko orientabideak jarraituz.
BALDINTZAK (fisikoak eta inguruneak)	Eskalak betetzeko ez da baldintza fisiko berezirik behar, ez eta ingurune espezifikorik ere.	Ikastetxeko baldintzetan aplikatu daiteke.	Profesionalek markatzen dituztenak.
FAMILIAK (informazioa/baimena)	Informazioa: BAI. ikasturte hasieran eta beharrezkoa den bakoitzean. Baimena: EZ. Ez da inolako baimenik eskatu behar, behatzen denak zerikusi handia du etapako curriculumarekin.	Informazioa: BAI. Baimena: EZ.	Informazioa: BAI. Baimena: BAI.
MATERIALAK (zein dokumentu begiratu)	Haurraren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa: Arreta Goiztiarraren Baitan. Arreta Goiztiarreko Marko-Plana.	Haurraren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa: Arreta Goiztiarraren Baitan. Detekzio Espezifikoa. 2020	Beste Zerbitzu Batzuetarako Deribazio Txostena HH.
INFORMAZIOA (dokumentuen kudeaketa)	Haurraren eskola espedientean.	Haurraren eskola espedientean.	Haurraren eskola espedientean.

ARRETA GOIZTIARRA PROGRAMAN IKASTURTEAN ZEHAR EGINBEHARREKOAK, ARDURADUNAK ETA MOMENTUAK

ZER	NON	NOIZ	NOREN ARDURA
Ikasturte hasierako EBAZPENak Arreta Goiztiarrari buruz esaten duena klaustroari jakinarazi, eta Haur Hezkuntzako tutoreei bereziki.	Klaustroan	Ikasturte hasieran	ZUZENDARIA
Arreta Goiztiarra programaren prozedura eta kronograma Haur Hezkuntzako tutore eta beste langileei helarazi.	HH etapan	Ikasturte hasieran	IKASKETA BURUA
Haur Hezkuntzako familiei Arreta Goiztiarra programaren berri eman.	Gurasoen Bilerak Orokorrean	Irailean	ZUZENDARIA
Familiei Arreta Goiztiarraren zergatia azaldua eta protokoloaren azalpenak eman.	Ikasturte Hasierako Bileran	Irailean	TUTOREA
Haur bakoitzaren familiarekin informazio/koordinazio bilerak izan, beharren arabera.	Hitzartutako Bileran	Behar denean	TUTOREA
Haurraren Garapena Behatzeko Eskalen irakurketa eta analisi partekatu egin (ulermen bateratua).	HH etapan	Urrian	IKASKETA BURUA
Erabiliko diren tresnak, erregistro erak... hainbat ohar Haur Hezkuntzako eskura jarri.	HH etapan	Urrian	IKASKETA BURUA
Behaketa epean zehar gertatzen denaren zain egon.	4-5 urte 2-3 urte	Azaroa-abendua Otsaila-martxoa	IKASKETA BURUA
Haurraren Garapena Behatzeko Eskalak bete.	4-5 urte 2-3 urte	Azaroa-abendua Otsaila-martxoa	TUTOREA
Behaketa epealdi bakoitza amaitu ondoren haur bakoitzaren behaketa tresna espedienteen gorde eta haur taldearen datuak erregistratu.	4-5 urte 2-3 urte	Urtarrila Apirila	TUTOREA
Behaketa epealdi bakoitza amaitu ondoren datu bilketa eta datuen azterketa egin.	4-5 urte 2-3 urte	Urtarrila Martxoa (2.hamabostaldia)	IKASKETA BURUA IRAKASLE AHOLKULARIA
Datu azterketaren emaitzak Haur Hezkuntzakoekin partekatu eta, kasuan kasuko, neurriak martxan jartzen hasi: berariazko esku-hartzeen diseinua (JPP), Detekzio Espezifiko faseari hasiera eman...	4-5 urte 2-3 urte	Urtarrila Apirila	IKASKETA BURUA IRAKASLE AHOLKULARIA
Premiazko diren kasuei berariazko esku-hartzeak diseinatu eta martxan jarri(JPP)	4-5 urte 2-3 urte	Urtarrila Martxoa (2.hamabostaldia)	TUTOREA
Premiazko kasuei Detekzio Espezifiko fasea martxan jarri	4-5 urte 2-3 urte	Urtarrila Martxoa (2.hamabostaldia)	IKASKETA BURUA IRAKASLE AHOLKULARIA
Detekzio espezifikoa gauzatu.	4-5 urte 2-3 urte	Urtarrila Apirila	IRAKASLE AHOLKULARIA
Bai berariazko esku-hartzeen (JPP) bai Detekzio Espezifikoaren jarraipena egin.	4-5 urte 2-3 urte	Urtarrila eta otsaila Martxoa eta apirila	IKASKETA BURUA IRAKASLE AHOLKULARIA
Beste zerbitzu batzuekin (Osasun arloa, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, AGBT) hasierako kontaktuak izan.	4-5 urte 2-3 urte	Ikasturtean zehar	IRAKASLE AHOLKULARIA
Ebaluazio Psikopedagogikoa eskaera protokoloa martxan jarri.	4-5 urte 2-3 urte	Ikasturtean zehar	TUTOREA IRAKASLE AHOLKULARIA
Beste zerbitzu batzuetara deribazio txostena martxan jarri.	4-5 urte 2-3 urte	Ikasturtean zehar	ZUZENDARIA TUTOREA IRAKASLE AHOLKULARIA
Beste zerbitzuekin (Osasun arloa, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, AGBT) jarraipen eta koordinazio bilerak izan.	4-5 urte 2-3 urte	Otsailetik aurrera Maiatzetik aurrera	TUTOREA IRAKASLE AHOLKULARIA
HLBP aholkularitzarekin haurren jarraipen bilerak izan.	4-5 urte 2-3 urte	Planean jarritakoaren arabera	TUTOREA IRAKASLE AHOLKULARIA
Detektatutako kasuetan diseinatutako esku-hartzeen jarraipena egin(JPP)	4-5 urte 2-3 urte	Urtarriletik aurrera Martxotik aurrera	TUTOREA IRAKASLE AHOLKULARIA
Datuak Sartu AG aplikazioan		Apirilean	TUTOREA
Behaketa eskalak ondo beteta dauden begiratu eta haurraren espedienteen behar bezala gorde direla ziurtatu.		Ekainean	TUTOREA IKASKETA BURUA
Arreta Goiztiarraren memoria txostena egin.		Ekainean	IKASKETA BURUA
Arreta Goiztiarra memoriaren berri klaustroan eman.	Klaustroan	Ekainean	IKASKETA BURUA

ARRETA GOIZTIARRA 2-5 urteko haurren garapeneraren jarraipenerako protokoloa.

ZUZENDARIAREN ZEREGINAK

	IKASTURTEA									
	IRA	URR	AZA	ABE	URT	OTS	MAR	APR	MAI	EKA
Ikasturte hasierako EBAZPENAK Arreta Goiztiarrari buruz esaten duena klaustroari jakinarazi, eta Haur Hezkuntzako tutoreei bereziki.										
Haur Hezkuntzako familiei Arreta Goiztiarra programaren berri eman.										
Beste zerbitzu batzuetara deribazio txostena martxan jarri.										
Datuak AG aplikazioan sartu.										
Arreta Goiztiarra memoriaren berri klaustroan eman.										

ARRETA GOIZTIARRA 2-5 urteko haurren garapeneraren jarraipenerako protokoloa.

IKASKETA BURUAREN ZEREGINAK

	IKASTURTEA									
	IRA	URR	AZA	ABE	URT	OTS	MAR	APR	MAI	EKA
Arreta Goiztiarra programaren prozedura eta kronograma Haur Hezkuntzako tutore eta beste langileei helarazi.										
Haurraren Garapena Behatzeko Eskalen irakurketa eta analisi partekatua egin (ulermen bateratua).										
Erabiliko diren tresnak, erregistro erak... hainbat ohar Haur Hezkuntzakoaren eskura jarri.										
Behaketa epean zehar gertatzen denaren zain egon.			4-5 urte			2-3 urte				
Behaketa epealdi bakoitza amaitu ondoren datu bilketa eta datuen azterketa egin.				4-5 urte			2-3 urte			
Datu azterketaren emaitzak Haur Hezkuntzakoekin partekatu eta, kasuan kasuko, neurriak martxan jartzen hasi: berariazko esku-hartzeen diseinua(JPP), Detekzio Espezifikoko faseari hasiera eman...					4-5 urte			2-3 urte		
Bai berariazko esku-hartzeen bai Detekzio Espezifikokoaren jarraipena egin. (JPP)										
Beste zerbitzu (Osasun arloa, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak, AGBT) jarraipen eta koordinazio bilerak izan.										
Detektatutako kasuetan diseinatutako esku-hartzeen jarraipena egin. (JPP)										
Behaketa eskalak ondo beteta dauden begiratu eta haurraren espedientean behar bezala gorde direla ziurtatu.					4-5 urte			2-3 urte		
Arreta Goiztiarraren memoria txostena egin.										

ARRETA GOIZTIARRA 2-3 urteko haurren garapeneraren jarraipenerako protokoloa.

IRAKASLE AHOLKULARIA ZEREGINAK

	IKASTURTEA									
	IRA	URR	AZA	ABE	URT	OTS	MAR	APR	MAI	EKA
Tutoreei asistentzia eman.										
Zuzendaritzari asistentzia eman.										
Behaketa epealdi bakoitza amaitu ondoren datu bilketa eta datuen azterketa egin.					4-5 urte			2-3 urte		
Datu azterketaren emaitzak Haur Hezkuntzakoekin partekatu eta, kasuan kasuko, neurriak martxan jartzen hasi: berariazko esku-hartzeen diseinua(JPP), Detekzio Espezifikoko faseari hasiera eman...					4-5 urte			2-3 urte		
Detekzio Espezifikoa gauzatu.					4-5 urte			2-3 urte		
Berariazko esku-hartzeen jarraipena egin eta laguntza eman (JPP)										
Ebaluazio Psikopedagogikoa eskaera protokoloa martxan jarri.										
Beste zerbitzu (Osasun arloa, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, AGBT) jarraipen eta koordinazio bilerak izan.										
HLBP aholkularitzarekin haurren jarraipen bilerak izan.										
Arreta Goiztiarraren memoria egiten parte-hartu.										

ARRETA GOIZTIARRA 2-3 urteko haurren garapeneraren jarraipenerako protokoloa.

TUTOREAREN ZEREGINAK

	IKASTURTEA									
	IRA	URR	AZA	ABE	URT	OTS	MAR	APR	MAI	EKA
Familiei Arreta Goiztiarraren zergatia azaldu eta protokoloaren azalpenak eman.										
Haur bakoitzaren familiarekin informazio/koordinazio bilerak izan, beharren arabera.										
Haurraren Garapena Behatzeko Eskalak bete.										
Behaketa epealdi bakoitza amaitu ondoren datuen azterketa egin.										
Behaketa epealdi bakoitza amaitu ondoren haur bakoitzaren behaketa tresna espedientearen gorde eta haur taldearen datuak erregistratu.										
Beharrezkoak diren kasuei berariazko esku-hartzeak diseinatu eta martxan jarri (JPP)										
Premiazko kasuei Detekzio Espezifikoko fasea martxan jarri irakasle aholkulariarekin batera.										
Premiazkoa balitz, beste zerbitzu batzuetara (Osasun arloa, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, AGBT) bideratu.										
HLBP aholkularitzarekin haurren jarraipen bilerak izan.										
Beste zerbitzu (Osasun arloa, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, AGBT) jarraipen eta koordinazio bilerak izan. Beste profesional batzuekin eta kasuen arabera.										
Arreta Goiztiarraren memoria egiten parte-hartu.										

ARRETA GOIZTIARRA 4-5 urteko haurren garapeneraren jarraipenerako protokoloa.

TUTOREAREN ZEREGINAK

	IKASTURTEA									
	IRA	URR	AZA	ABE	URT	OTS	MAR	APR	MAI	EKA
Familiei Arreta Goiztiarraren zergatia azaldua eta protokoloaren azalpenak eman.										
Haur bakoitzaren familiarekin informazio/koordinazio bilerak izan, beharren arabera.										
Haurraren Garapena Behatzeko Eskalak bete.										
Behaketa epealdi bakoitza amaitu ondoren datuen azterketa egin.										
Behaketa epealdi bakoitza amaitu ondoren haur bakoitzaren behaketa tresna espedientean gorde eta haur taldearen datuak erregistratu.										
Premiazko diren kasuei berariazko esku-hartzeak diseinatu eta martxan jarri(JPP)										
Premiazko kasuei Detekzio Espezifiko fasea martxan jarri irakasle aholkulariarekin batera.										
Premiazkoa balitz, beste zerbitzu batzuetara (Osasun arloa, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, AGBT) bideratu.										
HLBP aholkularitzarekin haurren jarraipen bilerak izan.										
Beste zerbitzu (Osasun arloa, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, AGBT) jarraipen eta koordinazio bilerak izan. Beste profesional batzuekin eta kasuen arabera.										
Arreta Goiztiarraren memoria egiten parte-hartu.										

Ohiko 20 galderei erantzuten

1. Haur guztien Behaketa Eskala osoak bete behar al dira?

Garapenaren arloak: BAI, haur guztiei eta beti. Arloak: “motorra eta fisikoa”; “pertsonala eta soziala”; pertzepzioa-ulermena, eta arazoak konpontzea” eta “hizkuntza eta komunikazioa”.

“Garapen goiztiarra” atala: EZ. Bakarrik lau arloen behaketa egin ostean eta haur jakin batek garapen goiztiarren zantzuak dituela edo bere adinari dagokiona baino garapen handiagoa duela iruditzen bazaigu, kasu horretan soilik egin behar da. Ikastetxeko irakasle aholkulariarengana jotzea komeni da horrelako kasuetan.

“Garapenaren alterazioaren bat adierazten duten alerta-seinaleak, jarraipen berezia behar duten umeak, arrisku biologiko, psikologiko edo sozialagatik” atala: EZ. Jokabide jakin bat betetzen ez den kasuan edo haurraren bizitzan eragin negatibo nabarmena duen jokabidea detektatzen denean. Ikastetxeko irakasle aholkulariarengana jotzea komeni da horrelako kasuetan, beti.

2. Behaketa egin beharreko arlo eta ataletako item guztiak bete behar dira?

BAI. Item bakar bat ere ezin da hutsik egon. Item baten zalantzak daudenean edo ez dakigunean betetzen den ala ez honela adieraziko da (n), eta oharretan horren arrazoia emango da.

3. Nola betetzen dira eskalak?

Isei-Iveiko AG aplikazioan ikasleak betetzen dituen itemak klikatu eta inprimatu ikaslearen espedientean sartzeko.

4. Familiekin zer egin eta nolakoa izan behar du beraien parte-hartzea?

Ikasturte hasieran, aldi jakin baten behaketa egingo dela jakinarazi zaie familiei. Familiekin elkarlanean jardun behar da prozesuaren fase guztietan. Kontu handia jarri erabiliko diren hitzetan, eta ez erabili zuzenak ez diren hitzak edota espektatiba irrealak sor ditzakeenak (adibidez: probaldi, azterketa, balorazio...)

Behaketaren ondoren, familiei berri emango zaie ohiko bileretan, baina behaketaren emaitzei buruzko zalantzarik bada baliteke familiarekin lehenago harremanetan jartzea.

5. Zeintzuk Behaketa Eskala erabiliko dira?

Behaketa eskalak W67 aplikaziotik hartuko dira urtero.

6. Nori dagokio eskala orrian agertzen diren datuak betetzea?

Haurren tutoreari dagokio.

7. Jarraian bete behar al da behaketa eskala osoa?

EZ. Hala ere, arloak ez zatitzea gomendatzen da, ez hasi arlo berri baten behaketarekin aurreko arloarena ez bada bukatu. Epea bukatzeaz dagoe-nean item guztiak beteta eta datuak zuzen jarrita daudela konprobatu behar da.

8. Haurra aurrez-aurre egon behar al da behaketa eskala betetzeko?

EZ. Beraiek ez daukate zertan ikusi behar, eta susmatu ere ez.

9. Beste profesional batzuk parte-har al dezakete behaketa prozesuan?

BAI. Dena den argi utzi behar da tutorea dela behaketaren erantzule, eta bere irizpidea gailenduko da desadostasunik balego. Beharrezkoa balitz familiari informazioa eskatuko zaio batez ere hizkuntza eta komunikazio arloan.

10. Itemak aldatu edota egokitu al dira?

EZ. Ezin dira aldatu, eta eskaletan agertzen diren jokabideek ez dute inolako egokitzapenik egitea eskatzen, Haur Hezkuntzan ohikoak direnak direlako.

11. Ikasleak trebatzeko saiakerak egin daitezke?

Bai, aldeaz aurretik haurrari jokabidearen erakustaldiren bat egingo zaio, eta saiakeraren bat egiteko aukera eman ondoren, erregistroa egingo da.

12. Behaketa epe aldia amaitu ondoren, zer?

Tutore bakoitzak bere haur taldeko datu-taula beteko du, eta Ikasketak-buruari helaraziko dio. Gela mailan tutoreak datu horien azterketa egingo du, beharrezko hobekuntzak txertatzeko.

Horrez gain, haur bakoitzaren behaketa eskala bere aurreko urteko edo urteetako eskalarekin alderatuko du, premiazko esku-hartzeak diseinatuzko(JPP) eta martxan jartzeko.

Irakasle aholkulariarekin detekzio Espezifikoa egiteko beharra tratatuko du.

Gogoetarako galdetegiak

HAUR HEZKUNTZA HAUR TALDE BAKOITZEKO TUTOREAK ERANTZUTEKOAK

- Zer zailtasun aurkitu duzu behaketa prozesuan?
- Ustekabeko zerbait agertu al da?
- Ba al dago itemen bat deigarri gertatu dena?
- Iazko behaketa emaitzekin alderatuz, zer ikusten da?
- Aurtengo adin berdineko beste haur taldeekin alderatuz, zer ikusten da?
- Hobekuntzarako zure partetik zerbait egiteko ba al dago? Zer?
- Formazio premiarik nabaritu al duzu?
- Nori zer eskatuko zenioke?

Gogoetarako galdetegiak

IKASTETXEKO KONTSULTOREAK ETA IKASKETA BURUAK ERANTZUTEKOAK

- Zer zailtasun aurkitu duzu behaketa prozesuan?
- Ustekabeko zerbait agertu al da?
- Ba al dago itemen bat deigarri gertatu dena?
- Iazko behaketa emaitzekin alderatuz, zer ikusten da?
- Adin berdineko haurren tutoreen behaketa emaitzak alderatuz zerbait deigarria ikusten al da?
- Haur talde berdinen emaitzen bilakaeran tutore aldaketak nabaritzen al dira?
- Sexuaren arabera emaitzak deigarriak dira?
- Detekzio Espezifikoa behar duten haur portzentajea iazko berdintsua al da? Erkidegoan ematen den batez-bestekoarekin bat al dator?
- Esku-hartze premia duten haur guztiek Detekzio Espezifikoa behar al dute? Horren arrazoiak argi al daude?
- Hobekuntzarako zure partetik zerbait egiteko ba al dago? Zer?
- Formazio premiarik nabaritu al duzu?
- Nori zer eskatuko zenioke?

H.H. JARDUERA PLAN PERTSONALIZATUA		
IKASLEAREN DATUAK		
LEHEN ABIZENA	BIGARREN ABIZENA	IZENA
JAIOTEGUNA	TUTOREA	TALDEA

PLANA EGITEAREN ARRAZOIAK	
Haurren Garapena Behatzeko Eskala MAILAurte	
☐ GARAPENAREN ARLOAN: MOTORRA ETA FISIKOA	zenbat ☐
☐ GARAPENAREN ARLOA: PERTSONALA ETA SOZIALA	zenbat ☐
☐ GARAPENAREN ARLOA: PERTZEPZIOA-ULERMENA, ETA ARAZOAK KONPONTZEA	zenbat ☐
☐ GARAPENAREN ARLOA: HIZKUNTZA ETA KOMUNIKAZIOA	zenbat ☐
☐ ALERTA-SEINALEAK	zenbat ☐
BESTE ERAKUNDEEN PARTE HARTZEA ☐ Foru Aldundiko Arreta Goiztiarra. ☐ Haur eta gazteentzako Osasun Mentaleko Unitatea ☐ Gizarte Zerbitzuak Jakin ea laguntzaren bat (edo haren familia) jasotzen ari ote den, baldin eta desabantaila sozialeko baldintzak edo beste baldintza batzuk ematen diren. ☐ Beste batzuk (zehaztu) Gaixotasunen bat, osasun-arazoren bat edo gerora sortutako egoeraren bat ote dagoen, edo beste arrazoi batzuegatik parte hartzen ari den programa komunitario batean, osasun-programa batean, Haurren Zerbitzuan,...	

1. IKASKETEN HISTORIALAREN LABURPENA

Informazio esanguratsuen (Informazioen *isilpekotasuna*)

Hezkuntza historialaren informazio esanguratsuenaren bilketa, azterketa eta balorazioa egin, hurrengo alderdi hauei buruzkoa:

1.- Familia testuingurua: Familia aurrekariak, Datu kliniko esanguratsuak, Familia inguruaren pertzeptzioa...

2. Testuinguru soziala : Beste herrialde nahiz Erkidego batetik ote datorren, Familiaren inguru sozio-ekonomiko-kulturala...

3.- Eskolako testuingurua : Aurreko ikasturtetako eskaletan zailtasunak antzeman ote diren, Ikasleak ebaluazio psikopedagorik ba dauka? Gelako testuingura: gelakide kopurua, afektiboki gertu sentitzen dituen gelakidean ote dituen, irakaslearen gertuko begirada eta apoiorik jasotzen du?

4.- Ikasleari buruzko informazioa : Garapen orokorra, bere adinerako espero litekeenari buruzko egoera, (garapenean aldaketa esanguratsurik egon ote diren baloratu) , Baldintza edo ezaugarri pertsonalak, Eskolako apendizaietan eta ohiko bizitzan dituen zailtasunek duten eragina baloratu. Besteak:

2. IKASLEAREKIN BETEKO DIREN JARDUERAK

GARAPENAREN ARLOAN: MOTORRA ETA FISIKOA	
Eskaleiretan gora eta behera ibiltzen da barandari edo hormari eutsita. Laguntzarekin eskaleiretan gora eta behera hankak txandakatuz ibiltzen da. Laguntza gabe egiten du.	- Banku txiki bat paretatik gertu jarri eta igo eta jeitsi, apoioz eta laguntzaz beharko balu. Banku txikia ez da oso altua izango, eta altuera aldatzen joan gaitezke. - Gomaespumako blokea eutsiko duen azalera baten gainean jarri; igo eta jeitsi. - Neurri ezberdineko blokeak bata bestearen gainean jarri, eskailera eginez, edo eskailear formako blokeak erabili, (ikastetxean baleude). Paretaren kontra jarri daiteke, bertan apoiatu ahal izateko, eta pixkanaka laguntza jeisten joan. ----- Banan banan Taldean ----- Gelan, pasiloan edo psikomotrizitate gelan. ----- Posible den egun guztietan / Egunaren zehar bakarka.
Hanka baten gainean egoten da.	- Zapatak garbitzen dizkigutenaren jolasa egin: lurtean kutxatxoak jarri eta haurrak oin bat horren gainean jarri, beste haur batek "zapata garbitzen" dion bitartean. Hasieran pareta edo aulki baten ondoan jarri daiteke haurra, apoiatu dadin. Horrela bi oinekin praktikatzeko da. - Oina altxatu eta eskuarekin ikutzera jolastu. Horrelako zerbait esan daiteke: "esku batez beste aldeko oina ikutzen dugu, ... edo eskuineko eskuak ezkerreko oina ikutzen du..." - Uztai handia bi eskuz helduta, bere barrutik pasatzera jolastu oinak altxatuz (bi gelakideek eutsi dezakete eta besteek "kobazulotik" banan banan pasa daitezke, ... ----- Hasieran helduaren modelatua eginez. Taldean. Banan banan. ----- Gelan, pasiloan edo psikomotrizitate gelan / egunero.

Korrika egiten hasi da. Erori gabe korrika egiten du. Korrika doaenean norantzkoa alda dezake.	- Musikaren erritmoa jarraituz oinez ibiltzera jolastu; hasieran musika lasaia eta erritmoa azkartzen joan, ondoren atzera moteltzeko. - Animalien gisa ibiltzen jolastu: elefantea, oso astuna delako, pauso oso zaratatsuak ematen ditu, kanguroek salto egiten dute, karramarroek atzeraka ibiltzen dira, - Leku berean saltoak egitera jolastu. - Leku bereak korrika egitera jolastu. - Oinez azkar ibiltzera jolastu, eta agindu jakin bat emandakoan norantzaz aldatu (txaloa jo edo hitz jakin bat esandakoan,...) - Atzeraka oinez ibiltzera jolastu eta norantzaz aldatu txaloa edo hitz jakin bat entzundakoan. ----- Taldean: helduak egiten duena, gelakide batek egiten du. ----- Gelan, pasiluan eta psikomotrizitate gelan /egunero.
Eskailera-maila batetik salto egiten du. Salto egiten du hanka biek batera. Hanka motzean ibiltzen da.	- Lurrean marraztu edo zinta bat erantsi, bidea eginez edo laukiak osatuz, eta euren gainetik salto egin. - Gometsak edo markak lurrean jarri eta hurrek, bertatik pasatzerakoan, dalto egin edo indarrez zapaldu behar dituzte. - Lurrean soka bat jarri eta bere gainetik salto egitea. - Uztaiak lurrean jarri eta batetik bestera oinez pasa, uztai bakoitzean aldiro oin bakarra jarritz. - Uztaiak lurrean daudela, batetik bestera salto egin. - Psikomotrizitate gelan bloke edo altura baxutik salto egitea. ----- Taldeko edo banaka. ----- Gelan, pasiluan edo psikomotrizitate gelan, ... ----- Taldearekin egunero. Egunaren zehar bakarka.
Aulki eta sofataratik igotzen da laguntzarik gabe.	- Pareta edo egitura finko baten kontra gomaespumazko blokeak jarri eta bertatik igo eta jeitsi. - Banku edo eskaloier funtzioa egingo duen zerbaiten gainera igotzea, aulki altu batera igotzea.. ----- Banan banan. Hasieran, helduaren modelatuaren laguntzaz. ----- Ikasgelan edo psikomotrizitate gelan. ----- Egunean zehar bakarka. Psikomotrizitate saioan.
Trizikloan ibiltzen da (pedalduna edo gabea).	- Rulo baten gainean eseri, oinak lurreraino iristen zaizkiolarik, motorrean joango balitz bezala. - Helduaren laguntzaz praktikatu korre-pasilos, edo trizikloarekin. ----- Banan banan. Hasieran, helduaren modelatuaren laguntzaz. ----- Ikasgelan edo psikomotrizitate gelan. ----- Egunero patioan edo psikomotrizitate saioan.

Pilota ostikoz jotzen du. Pilota ostikoz jotzen, jaurtitzen eta hartzen du. Heldu bati burutik gora jaurtitzen dio.	- Hanka aurrera eta atzera kulunkadu, aulki edo pareta batean apoiatuz. - Lurrean dagoen zerbait, kaxa edo bloke bat, oinarekin mugitzera jolastu, ... - Puxika bat mugitzen jolastea gorputzeko zati ezberdinak erabiliz: bizkarra, aldaka, belauna, orkatilla, oina... - Pilota handi eta arin bati (hondartzako pilotaren modukoa) ostikoak ematen jolastea. - Haur batzuk ilaran jarri eta buru gainetik pasatzen joan objektu bat, muñeko bat, pilota bat, - Bloke handiak leku batetik bestera eramatera jolastu, bi eskuz helduta eta hauek buru gainean izan da. - Arinak diren pilotekin (oihalezkoak, espumazkoak, ..) jolastu bolotan , ondoren, gorago jarritako diana batean, ... - Elkarri pasa pilota, hasieran bikoteka, gertutik hasita hurrunduz joan. Taldean: helduak egiten duena ondoren hurrek egin, haur batek egiten duena besteek imitatu... Ikasgelan, pasiluan, psikomotrizitate gelan, ... Egunero taldean. Egunean zehar, banaka.
Elkarri pelota pasatzen diote	
Zirrimarrak egiten ditu. Marra zuzenak edo zirkuluak kopiatzen ditu. Zirkuluak eta karratuak kopiatzen ditu. Triangeluak eta bestelako irudi geometrikoak kopiatzen ditu.	- Hatz-erakuslearekin airean marrazkiak egiten jolastea. - Hutsik dagoen paperean hatz-erakuslearekin marrazten edo idazten ariko balitz bezala egin. - Behatzarekin lerroak edo marrazkiak erreparasatu. - Boteila edo ontzietako tapa edo tapoiekin jolastu, plastilina puska baten kontra estutuz eta gainetik arkatza edo margo batez marka erreparasatu. - Azalera bertilean praktikatu: paper handia pareta edo bi astoren gainean edo arbelean jarrita, marrazkiak, zirriborroak edo trazuak egin, arkatzak ez diren beste materialak erabiliz (margo lodiak, tizak,e.a). - Azalera horizontalean praktikatu. - Bertikalean lan egin edo jolasak egin: arbelean marraztu, orma batean margotu edo mural bat egin, orriak altuera batean dagoen sokatxo batean pintzekin eskegi, apal altu batean dauden jostailuak edo liburuak hartu, ... - Koilara batekin kanikak edo bolatxoak kutxa batetik bestera pasatu. - Esku jokoak: txaloak eman,... - Bandejatxo batean objektuak gelako leku batetik bestera eraman. - Besoak mahai gainean daudela, eskuak altxatu eta mahaia jo erritmo desberdinak erabiliz. - Bolatxo edo ponpoiak atzamarrekin mugitu. Banan banan. Hasieran helduaren modelatuarekin. Taldean: helduak egiten duena egin, gelakide batek egiten duena. Ikasgelan / Egunero taldean borobilean / Egunean zehar banaka.
Artaziak erabiltzen ditu.	- Arropa pintzekin jolastea, edo beste pintza motekin; adb: ponpoiak leku batetik bestera pasatzea (ireki-itxi mugimendua). - Itxi eta irekitzen dituen bitartean goraizak hitz egiten duen txotxongiloa edo pertsonaia balitz bezala jolastu. - Testura anitzeko paperak urratu. - Ireki- itxi mugimendu gutxi erabiliz, plastilina, pajita edo beste material lodiren batean txurroak ebaki. - Paretan paper handia itsatsi eta bertan moztea praktikatu. - Paperezko bolatxoak eginez atzamarretan indarra har dezatela. - Gozaizak erabiliz ebaki. Talde osoa. Hasieran helduaren modelatuarekin. Ikasgelan / Egunean zehar banaka.

GARAPENAREN ARLOA: PERTSONALA ETA SOZIALA	
Helduen ekintzak imitatzen ditu.	- Objektuak erabiliz ekintzak imitatzen jolastea: marakak astindu, kotxea bultzatu, ... - Keinua sinpleak imitatzen jolatu: txaloak, burua ukitu, mahaian golpeak eman, ... - Keinua konplexuak imitatzea jolatu: salto egin, bi pausu eman eta gelditu, azkar/poliki ibili eta gelditu, atzeraka ibili, ... - Imitazio motrizaren soinuak lagundu: "agur"-aren keinua egin, eskua mugituz eta "agur" esanez, motorraren keinua motorraren soinuak, ... - Ekintzen sekuentziak imitatu: txaloak eta mahaian golpeak, buruan txanoa jarri, ...
Berdinen akzioak imitatzen ditu.	Banaka. Hasieran helduaren modelatuaren laguntzaz. Taldean: helduak egiten duena egin, gelakide batek egiten duena, ... Ikasgelan, patioan, psikomotrizitate gelan... . Egunero taldean borobilean. Egunero zehar banaka.
Gauza berriak egiteko interesa dauka.	- Jarduera berri, interesgarri eta egiten errazak direnak proposatu. Azalpen bisualak emanez egin aurretik. Helduaren presentzia eta laguntzaz. Ekintza errepikakorrei lotzen diren objektuak begi-bistatik kenduz. Ikasgelan, patioan Astero, programatuta. Sorpresarik gabe.
Zer gustatzen zaion eta zer ez zaion gustatzen esaten badaki.	- Bi aukeren artean erabaki beharreko jarduerak egin, hiru aukeren artean. Laguntza bisual eta ahozkoa: gailera borobila edo karratua. Margoak edo errotulagailuak. Puzlea edo soka sartzeko bolatxoak. Erabaki duena haurrarekin batera ahozkatuz eta atsegin ote duen edo ez. Ikasgelan "hamaiketako"-aren garaian egunero gelan. Eguneroko jardueretan.

Beste haur batzuekin egotea gustuko du.	- Bakarrik dagoen ikaslearengana heldua hurbildu berekin jolas egitera. Objektuen aukerak eta horiekin jolas egiten irakastera. - “bueltak” bakarrik ematen dituen ikaslea besteak dauden tokira hurbildu, berekin egonez, eta besteekin jolasa triangelatuz (beste ikasleak-heldua-ikaslea). - Ikasleak talde txikietan jarri, guztientzat nahiko jostailu izanda, errepikatuak badira, hobe, denek elkarrekin eta gauza berera jolastu ahal izateko. Helduak jolasa animatu eta estimulatzen du. - Gelakideen argazki albumak berekin batera ikusi/komentatu. - Interakzioak eta komunikazioa (programa individual de apoyo). Bere interesetatik abiatu, atxikimendu objektuak,.. Helduaren eskuhartze zuzenez. Gelakideren bati laguntzeko eskatuz, ... Berari beste gelakide bati lagun diezaiola eskatuz.. Ikasgelan, patioan , psikomotrizitatean... Jolasaren une guztietan.
Emozioak adierazten ditu . Sentimenduak ulertzen ditu beste pertsona batengan. Bere eta besteen emozioak ulertzen eta adierazten ditu. Besteen sentimendu eta beharrekiko enpatia erakusten hasten da.	(Hizkuntzaren erabilerak interakzio sozialetan euren emozioak erregulatzen laguntzen die, eta horrela, haserretu diren gelakidearekin hizketan hasi daitezke, negar egin edo fisikoki erasotu gabe. Hizkuntza garatzeak ordu arte modu desegokian adierazitako emozioak, argiago adierazteko aukera ematen du; garapen honek azaltzen du 3 eta 4 urteko haurren artean negarra eta hozkaden konpuruaren jeitsiera. Hizkuntza garatuta egon arren, emozioek haurra gain hartzen dutenean, jokabidearen bidez adierazten du haurrak barnean sentitzen duena. Emozioa ez da kuestionatzen, balidatu egin behar da. Erregulatu beharrekoa jokabidea da). Aprendizaia sozioemozionala bereziki lantzeko jarduerak: 1.Erlaxazioa: - Egoera ezberdinen irudikapenaren bidez gorputzaren zati ezberdinetara tentsioa eta erlaxazioa eramanez. Musikarekin edo gabe. Transizio erritualetan sortu (mudimendua duten abestiak) Lurrean etzanda, edo burua lurrean apoiatuz, argirik gabe, isiltasunean, begiak itxita. Helduak egin beharreko ekintza zehatzak bideratzen ditu. Ikasgelan, psikomotrizitatean. Atsedenetik bueltan, patioko mugimenduaren ondoren lasaitasunera bueltatuz, lurrean etzanda. Psikomotrizitate saioaren bukaera. 2.Arnasketa ariketak: - Elefanteak bagina bezala arnasa hartu: haurrak zutik eta hankak pixkat irekita. Puxika puztu: haurra aulkian eroso eta zuzen, bizkarra tente, eserita egongo da. Ikasgela Arratsaldeko saioaren hasieran: jangela ondorengo patio saioaren ondoren, arreta eta erlaxazio saioa taldean egitea komeni da, agitaziotik lasaitasunera pasadizoa errazteko. 3. Oinarrizko sentimenduak erreparatu eta izendatu: - Hurrengo ipuin hauen irakurketa eta azalpenaren bidez egin liteke: Emoziotegia, koloretako munstrua, Hasieran oinarrizko emoziei (alaitasuna, tristura, nazka, beldurra eta sorpresa) hainbat saio eskaini eta marrazki eta haur eta helduen argazkietan erreparatzen ikasi. Ikasgelan

	Goizeko korro/borobileko unean. <i>Ikaslea triste, haserre... ikusten denean eta gertatzen ari zaiona konturatzen eta izendatzen lagundu behar zaionean.</i> 4. Sormen eta kooperazio jolasak - Adibideak: haurren aurpegiez osatutako puzzleak, emozioekin bidea, ... Talde txiki nahiz handian jolastuz. Hainbat ikasgelan egiten dira eta besteak patioan. Betiere ere besteekin eta ondo pasatuz. Hainbat ikasgelan egiten dira eta besteak patioan. Betiere ere besteekin eta ondo pasatuz. Asteazken zehar aurrez ezarritako denbora eskaintzea merezi du. 5. Sentimenduei buruzko ipuinen irakurketa: poza, jelsia, lasaitasuna, dolua, ... - Tutoreak irakurri/kontatzen du, beste irakasleren batek, ikastetxe bereko ikasle nagusioago batek, guraso batek, ... Ipuinaren momentuan. 6. Emozio anitzak lantzen dituzten sketxa, roll playing antzerkia, txotxongiloak... 7. Erlaxatzeko leku berezia sortu ikasgelan. (material anitzak: muñekoak, koloretako tirak). Ikasgelan / egunero
Jolas sinbolikoa egiten hasten da, eguneroko bizitzako ekintzak imitatuz (panpinak, animaliak...) Jolas sinbolikoa egiten du (pintzak auto bihurtu, hodiak katalaju bihurtu).	- Jolas sinbolikoaren txokoa sortu, eguneroko bizitza errealeko egoerak simulatu ditzan eta besteen lekuan jartzen lagunduko dioten objektuak dituen, muñekoak, moztarrok, erabilera anitzeko materialak; aldiro materiala aldatzen joan, zuzendutako rolen aldaketarekin batera. Jolas sinbolikoaren eta hondar-gunearen espazioak play mobil muñekoak edo animaliak dituztenak, bere ingurunea interpretatzen joateko aukera ematen diote eta baita adierazteko eta emozio gatazkak askatzeko ere. Heldua haurrarendik gertu egotea komeni da, jolasa aberasteko, zentzua emateko eta beste haurrak jolasean sartzeko. Eurekin batera jolatu behar dugu, jolasten irakasteko eta euren jolasak eboluzionatu dezan. Ikasgelan / egunero
Beste batzuekin paraleloan jolasten da. Ondoa kooperatu gabe (2 urte). Jostailuak partekatu, jolatu eta besteekin aritzen da.	- Jolas anitzen jarduerak planifikatuz: ✓ Ikasgela barru eta kanpoan eginez. ✓ Ikastetxe barru eta kanpoan eginez ✓ bikote alkakorretan, talde txikian, talde handian eta taldeen artekoak. ✓ jarduera askeak eta helduaren gertutasun-bideratzearekin. ✓ jarduera lasaiak eta aktiboak ere. ✓ jarduera berriak eta egunerokoak ere. ✓ gorputz jarduerak eta objektu/jostailuekin ere. Taldea bereziki "aktiboa" edo "mugitua" bada, agian komeni da helduak zuzenean gainbegiraturako jardura gehiago egitea, eta pixkanaka, zirkulazio libreko denborak sartzen joatea, gelako materialek dituzten aukerak eta espazio ezberdinetako erabilera ezagutu ondoren. * Zarata, desordena eta zarata galeratzeko ahaleginak egin, ziurgabetasuna eta estresa sortzen dutelako. * Ondo egituraturako gelak (espazioak, lana egiteko moduak...) jokabide egokiak bultzatzen dute eta jokabide desegokiak azaltzeko aukera gutxiago daude. Ikasgelan, patioan, psikomotrizitatean, kanpoan / egunero.

